Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 435

Abenduak 15, 2022

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Amatasuna Feminismotik
4-5 Gabonak Irunen
6 Auntxa Trikitixa Eskola
7 Iparra Txiki Berri
8 Kirolak: Dust Race
9 Kirolak: Bidasoa XXL igeriketa
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Artista izan nahi dut!
14 iGazte
15 Agenda

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

26477

53152

57498

1922ko abenduaren 24an argitaratutako “El Bidasoa” aldizkariak orain dela 100 urte hirian albiste ziren gertaerak islatzen ditu. Aldizkariaren aurreko zenbakietan gertatu bezala, zenbakia aduanako langileen eta instituzioen arteko ika-mikarekin hasten da berriro. “Versos inéditos” atalerako “La noche del amor” olerkiak idatzi ditu Yolek. Orrialdearen amaieran, Eugenio Angoso jaunak Real Unión taldearekin ongintzako futbol partidu bat antolatzea proposatzen du, asiloko neskentzat piano bat erosteko. Jarraian, Ramón Garmendia maisua omentzeko antolatuko den omenaldiaren berri ematen da.

Kirolen atalaren hasieran Real Uniónek Eibarreko jokalarien aurka lortutako garaipena kontatzen da. Era berean, irundar batek Espainiako eta Portugaleko selekzioek jokatutako partiduaren kontaketa egiten du. Atalaren amaieran aldizkaria argitaratu zen egun berean Amuten jokatu zen ongintzako partiduarekin eta urtarrilaren 1ean Real Sociedad Gimnástica taldeak jokatu zuen partiduarekin lotutako informazioa ematen da. “Del coro al caño y del caño al coro” testuan Aduanako langileen gaiari heltzen zaio berriro ere. Snosky kolaboratzaileak aldiz, Amuten jokatutako azken partiduaren kontakizuna egiten du.

Hirugarren orrialdearen hasieran “Los Buenos Amigos” elkarteko kideek Gabonetarako hainbat gau jai antolatu dituztela aipatzen da, ekitaldien xehetasun guztiak emanez. Ondoren, Julián Larzábal irundarraren heriotzaren berri ematen da, hildakoaren bizitza eta hiriari egindako ekarpena errepasatuz. R.A kolaboratzailea, berriz, Espainia eta Portugalen arteko partiduaren testuinguruaz baliatzen da Irunera muga zeharkatu nahian iristen diren portugaldarrek sufritzen dituzten miseriak salatzeko. Orrialdea “Noticias” atalarekin amaitzen da, publizitatez betetako azken orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
26477: Irungo Atsegiñaren XXV. urteurrena edo Zilarrezko Ezteiak: zorrotzaileen eta aterkilarien konpartsaren emanaldia, Prudencia Arbide kaleko eraikin baten aurrean, jada desagertua (1947ko apirilaren 19a).

53152: Irungo hirigunearen ikuspegia, Ibaieta gainetik 1920. urtera aldera hartua.

57498: Elizatxoko kuartel militarraren pabiloiak. XIX. mendearen amaieran eraikiak, gaur egun Pio Baroja eta Bidasoa institutuek okupatzen duten orubean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Parean Berdintasun Elkarteak amatasunen analisia egin du feminismoaren ikuspuntutik

Parean Berdintasun Elkarteak “Amatasunak Feminismotik” ikerketa bultzatu du amatasunaren gaia ikuspuntu feministatik lantzeko asmoz. Ikerketa Atsolorra proiektuaren barnean garatu dute. Informazioa biltzeko Gipuzkoan barrena emakumeekin amatasuna hizpide izan duten hainbat saio antolatzeaz gain, 150 emakumek erantzundako galdetegian oinarritu dira. Ainara Lopez Zarco Parean elkarteko kidea da eta azterketaren emaitzen irakurketa egin du.

Parean elkarteak Atsolorra proiektua sortu zuen feminismoak amatasunaren lanketa era kolektiboa egiteko abagunea eman dezan. Atsolorra hitza garai batean Euskal Herrian egiten zen eta egun ia galduta dagoen jaiotza erritutik dator. Erritu hartan haurra jaiotako baserrian auzoko emakumeak elkartzen ziren ama berriari laguntzeko asmoz. Parean elkarteak berriz, beren Atsolorra partikularraren bitartez, amatasun feminista eraikitzeko bidea hasi nahi du.

Ainara Lopez Zarcok azaldu du Parean elkartean ikerketa hau burutzea erabaki zuela feminismoan amatasunaren gaia landugabe zegoela konturatu ostean. “Feminismoak ama ez izatearen eta abortuaren aldeko aldarri asko egin ditu, baina ama bihurtzen garenean erreminta eta hausnarketa falta hauteman dugu”, adierazi du berdintasun elkarteko kideak. Beraz, Parean elkarteak ikerketa abiatu zuen lanketa hori modu kolektiboan egitea ahalbidetzeko lanabesak sortzeko.

Ikerketarako informazioa biltzeko Parean elkarteak saio parte-hartzaileak antolatu zituen lehenengo. Hernani eta Pasaian egin ziren saio horiek eta hainbat dinamikaren bitartez taldean gogoetak eta erronkak partekatu zituzten. Ainara Lopez Zarcok nabarmendu duenez, “saio horietan ez genuen soilik gure prozesu pertsonalez hitz egin, ama direnen eta ez direnen arteko sareak sortzeko gakoak ere landu genituen”. Era berean, proiektuaren emaitza biribiltzeko podcastak sortu dituzte, amatasunaren gaia landu duten emakumeei ahotsa emateko. “Feminismoaren ahizpatasuna amatasuna bezalako beste espazio batera eraman nahi dugu”, gaineratu du Ainarak.

Parean elkartetik ikerketak izan dituen mugak ere onartu dituzte. Izan ere, inkestatu gehienek galdeketa euskaraz erantzun dute eta datu esanguratsua da. Baldintza ekonomikoek ama izateko aukerak mugatzen dituzte eta, beraz, sistemak horretarako erraztasunak eman beharko lituzke amatasuna modu duinean bizitzea posible izan dadin.

Bakardadetik eredu desberdinetara

Ainara Lopez Zarcok azaldu du ikerketa prozesu guztian gehien errepikatu den hitzetako bat “bakardadea” izan dela. Horregatik, ikerketaren bitartez bestelako amatasun ereduak daudela islatu nahi izan dute. Era berean, azterketaren ondorioen txostenean azaltzen denez, amatasun eredua kontzienteki edo inkontzienteki aukeratzeaz harago, erabaki bakoitza emakumearen testuinguruarengatik eta aukera ekonomikoengatik baldintzatuta dago. Parean elkarteko kidearen hitzetan emakumeek amatasunarekin loturiko “presio asko” sufritu dituzte, esaterako, ama izateko presioa, eta beste emakume asko berriz, bere amatasun ereduarengatik epaitua sentitu dira. Pareanek ikerketaren ondorioetan jaso duenez, emakumeen erdiak baino gehiagok ama izateko presioa sentitu du noizbait. Beraz, berdintasun elkarteak epairik gabeko amatasun eredu ezberdinak plazaratzeko beharra ikusi du. Horrela, amatasuna itogarri egiten duen sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka egiteko ahizpatasunez elkartzea proposatzen du.

Atsolorra proiektuko ikerketaren emaitzetan ondorioztatu da kontziliazioa dela zuzenean amatasunean eragina duen beste faktoreetako bat. Galdeketan bildutako 140 erantzunen artean emakumeen % 95ak ama izateak beren lan baldintzei eragin diela onartu du. Hortaz, benetako kontziliazioa posible izan dadin, zaintza familia nuklearretik kanpo kokatzea eta zainketa kooperatibo eta komunitarioaren alde egitea proposatzen da. Era berean, ama izan ostean gorputzaren aldaketek emakumeen autoestimuan eta sexualitatean duten eragina aipatu da. Gainera, ama diren eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeek zama bikoitza dutela ondorioztatu da. Emaitzen txostenean irakur daitezkeenez, “amatasunak, bereziki lehen hilabete eta urteetan dakarren pisuarekin, emakumeek ez dute euren burua zaintzen eta beraz zaildu egiten da indarkeria egoeratik ateratzeko indarrak eta baliabideak lortzeko prozesua”.

Amatasun eredu motak zabaltzen eta ezagutarazten joan diren heinean, ama izatearekin loturiko tabuak ere iraultzen eta ezabatzen hasi dira. Amatasuna eredu zurrunetik aldentzeak orain gutxira arte isilpean bizi ziren gaiak ezagutarazteko aukera eman du. Adibidez, gero eta gehiago hitz egiten da abortuaz, ama izateko ezintasunaz, indarkeria obstetrikoaz edo heriotza perinatalaz. “Orain arte bakardadean bizi ziren prozesu horiek guztiak eta oso bortitzak dira”, azaldu du Ainara Lopez Zarcok. Aurretik aipatutako guztiak normalizatzeak eta plazaratzeak izan dezakeen garrantzia ohartarazi du berdintasun elkarteko kideak.

Gertatzeko dauden aldaketak

Feminismoak lortu du jada amatasuna, emakumeen eginbehar bat izan ordez, aukera bat izatea. Dena dela, Ainara Lopez Zarcok uste du gizartean oraindik “indarkeria sinboliko” horren azken zantzuak desagerrarazteko, ama izateko nahiarekin loturiko komentarioak eta epaiak guztiz ezabatu behar direla. Izan ere, galdeketa erantzun duten emakumeen ia % 64a aukeratutako amatasun ereduagatik epaitua sentitu da eta horrek ez luke horrela izan behar. Kontziliazioarekin loturik oraindik urrats asko egiteko daudela ulertzen dute Parean elkartetik. Lanen banaketaz gain, emakumeek ama izateagatik jasaten duten karga mentala izugarria baita.

Amatasunaren lanketarako babyboom-a mugarri bezala erabili ohi den arren, Parean elkarteko kideak azaldu du gaur egun proportzioan emakume gehiago izaten dela ama orduko kopuruekin alderatuta. Horrela, ama izateko erabakia hartzen denean, emakumeen eskubide eta aukera guztiek bermatuak egon beharko lukete. Sistemak gaur egun hori ziurtatzen ez badu ere, Parean bezalako elkarteen lanketa eta inplikazioa ezinbestekoa izango da amatasun moldeak iraultzeko eta apurtzeko.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irun inoiz ikusi ez diren Gabonen atarian dago

Irun inoiz ikusi ez diren Gabonak bizitzeko prestatzen ari da. 2022. urtea agurtu eta urte berriari ongi etorria egiteko askotariko ekintzak antolatuko dira hirian. Abenduaren erdialdetik aurrera eta urtarrilaren hasierara bitarte bereziki haurrentzat pentsatutako jarduerak egingo dira. Ohikoa denez, aurten ere ez dira egun horietako hitzordu ohikoenak faltako, baina jarduera berriren bat ere gehitu zaio agendari. Ordutegiak jarduera kopurua bezain zabalak dira; beraz, ordutegiak aldatu egiten dira egunaren eta jardueraren arabera.

Izotz pistak eta txirrista erraldoia

Izotz-pistak izango dira Irungo Gabonetako nobedade nagusietako bat aurten. Aurreko urteetan ere hirian izotz pista bat jarri bada ere, aurtengo nobedadea da aldi berean Irunek hiru izotz pista izango dituela. Izotz sintetikoko pistak izango dira eta abenduaren 16tik urtarrilaren 15era egongo dira irekita. Pista nagusia Luis Marianoko lorategietan jarriko da, 800 m2 inguruko azalera izango du eta zirkuitu eran antolatuta egongo da.

Beste bi pistak Pio XII plazan eta Sarjiako parkean jarriko dira. Pio XII plazako pistak 320 m2 izango ditu eta estalita egongo da. Sarjiakoak berriz, 150 m2 inguru izango ditu eta haurrentzat pentsatuta dago. Era berean, aurreko urtean egin bezala, Sarjia parkean apaingarriak jarriko dira abenduaren 16tik urtarrilaren 7ra parkeari Gabonetako herrixka itxura emateko.

Izotz pista guztiak eta txirrista erraldoia egun eta ordu beretan irekiko dira. Hau da, abenduaren 16tik abenduaren 22ra eta urtarrilaren 1etik 15era pistak eta txirrista arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara irekiko dira. Asteburuetan, larunbat eta igandeetan, pistak eta txirrista goizez irekiko dira ere, 11:00etatik 14:00etara. Abenduaren 23tik 31ra ordutegia inoiz baino zabalagoa izango da, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara irekiko dira eta. Abenduaren 25ean berriz, izotz pistak eta txirrista itxita egongo dira egun osoan zehar.

Ordutegi bera izan arren, prezioa ezberdina izango da. Izotz pistetarako sarrera 13 urtetik beherakoentzat 2 eurokoa izango da eta 13 urtetik gorakoentzat 3 eurokoa. Hala ere, bonu bereziak eskuratu ahalko dira: izotz pistarako 5 sarrera 13 urtetik beherakoentzat 8 euroan eta 13 urtetik gorakoentzat 12 euroan. Txirrista erraldoian berriz, bidaia bakoitzak euro bat balioko du. Era berean, izotz pistarako eta txirristarako sarrera akonpainatuak eskuratuz gero, 13 urtetik beherakoek 2,50 euro ordainduko dituzte eta 13 urtetik gorakoek 3,50 euro.

Olentzero eta Mari Domingi

Urtero gertatzen den bezala, abenduaren 23an Olentzero eta Mari Domingi Irunera etorriko dira hiriko biztanle txikienen eskutitzak jasotzeko. Gutunak jasotzen hasi aurretik, arratsaldeko 18:00etan Alberto Angera plazatik irtengo dira eta Irungo zenbait kaletatik igaroko dira: Hondarribia kalea, Zubiaurre kalea, Geltoki Kalea, Colón ibilbidea, Fueros karrika, Karrika Nagusia eta San Juan plaza. Jarraian, arratsaldeko 18:30etik 21:00ak arte Olentzero eta Mari Domingi udaletxeko arkupetan egongo dira eta haurren gutunak jasoko dituzte.

Errege Magoak

Urtarrilean, urtea hasi eta egun gutxira Ekialdeko Errege Magoen txanda izango da. Maiestateen morroiak izango dira hirira iristen lehenak eta urtarrilaren 4ko arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara Irungo haurren gutunak jasoko dituzte Udaletxeko Arkupetan.

Hurrengo egunean, urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan Errege Magoak trenez iritsiko dira Irungo tren geltokira. 18:30ean berriz, Erregeak udaletxeraino eramango dituen kabalgata hasiko da Letxunborro hiribidean. Kabalgataren ibilbidea hau izango da: Hondarribia kalea, Colón pasealekua, Eliza kalea, San Juan plaza, San Martzial kalea, Urdanibia plaza eta Eguzkitzaldea eta Prudencia Arbide kaleen arteko bidegurutzean amaituko da.

Eguberrietako Azoka

Aurten, aurrekoetan bezala, Gabonetako azoka egingo da Zabaltza plazan, tokiko merkatariekin. Abenduaren 16tik urtarrilaren 5era egongo da irekita. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean berriz, itxita egongo da.

Erakusketak

Gabonetan zehar Irunen hainbat erakusketa bisitatu ahalko dira. Esaerako, abenduaren 16tik urtarrilaren 9ra Olentzeroen eta Jaiotzen erakusketa hartuko du Amaia Kultur Zentroak. Irungo Udalak antolatutako erakusketa da, baina, era berean, Gipuzkoako Jaiotzazaleen Elkarteak bere Jaiotzak jarriko ditu erakusgai. Erakusketa bisitatu ahalko da asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etik 13:30era.

Menchu Gal aretoak otsailaren 19ra arte Jose Zugastiren ITSAS eta LOTUrak" erakusketa izango du ikusgai. Erakusketa bisitatzeko egunak ostiralak eta larunbatak 18:00etatik 21:00etara igande eta jaiegunetan 11.30etik 13.30era izango dira.

Palmera Montero gunean urtero bezala BAF 7301 elkarteak Trenen maketen erakusketa egingo du urtarrilaren 4ra arte. Erakusketa arratsaldeetan ikusi ahalko da 17:30etik 20:00etara eta abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

- Adinekoentzako Egoitzak
- Mugaz gaineko Eguneko Zentroak, 365 egunez, Irun Hondarribia eta Hendaiarainoko garraio zerbitzuarekin
- Psikogeriatria unitateak
- Apartamenduak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161- HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

all4móvil

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com

Puiana kaleko 30. zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Oiasso Erromatar Museoa

Oiasso Erromatar Museoak Gabonak ukitu erromatarrarekin ospatzeko hainbat ekintza antolatu ditu. Nerea Arriola aktore eta clownaren eskutik euskaraz emango diren Haurrentzako Antzerki Tailerrak antolatu dituzte. Antzerki tailerrak Oiasso museoan abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 4ra egingo dira. Tailerrak arratsaldeko 16:30etik 17:45era egingo dira eta 32 euro ordaindu beharko dira horietan parte hartzeko.

Abenduaren 26tik 30era 18:00etatik 19:30era Irakurketa Dramatizatuko tailerrak egingo dira. Ana Pérezek zuzenduko ditu tailerrak eta 20 euroko prezioa izango dute. Abenduaren 22an eta urtarrilaren 4an 18:30etik aurrera euskaraz "Jolastu Nahi?" bakarrizketak egingo dira eta sarreraren prezioa euro batekoa izango da. Abenduaren 27an eta urtarrilaren 3an Mosaiko Erromatarren tailerrak antolatuko dira 6 eta 12 urte arteko haurrentzat 4 euroren truke 11:00etatik 12:30era. Abenduaren 28an eta 4an "Erroma eta Zinema tailerrean gorputz adierazpena landuko dute 8 eta 12 urte arteko haurrek 11:00etatik 12:30era 4 euro ordainduta. Abenduaren 29an eta urtarrilaren 5ean Arkeolab tailerrak egingo dira 8-12 urte arteko haurrentzat 11:00etatik 12:30era 4 euro ordainduta. Azkenik, abenduaren 30ean eta urtarrilaren 7an 10:00etatik 14:00etara Oiassortu pintura lehiaketa antolatuko da adin guztietako pertsonentzat, parte hartzeko 2 euro ordaindu beharko direlarik.

Tailerrak

Irun Factoryk Gabonetako Tech tailerrak egingo ditu abenduaren 26tik 30era. Tailerrak 8 eta 10 urte bitarteko haurrentzat pentsatuak daude eta goizeko 9:30etik 13:30era egingo dira.
Era berean, abenduaren 27tik 30era Menchu Gal aretoan Arte tailerrak egingo dira. Tailerrak arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara egingo dira.
Agenda

Gabonetako kutsua duen agenda kulturala

Abenduaren

16an
- Sarjia parkean 18:00etan Ametsa Txiki abesbatzaren kontzertua
- Sarjia parkean 19:00etan haurrentzako Gookapi ikuskizuna.

17an
- Luis Marianon eta Colón pasealekuan 13:00etatik 18:00etara Gabonetako Krossarekin lotutako ekintzak.
- Colón pasealekuan "Irun, betiko Gabonak, inoiz ez bezala" inaugurazioa 18:00etatik 22:00etara.

18an
- Amaia Kultur Zentroan Rotary Club Irun-Bidasoaren Gabonetako Ongintzako Kontzertua arratsaldeko 19:00etan. Sarrerak 15 euroko prezioa izango du.

19an
- Haurren herrixkan, Sarjia parkean, kamiseten serigrafia tailerra 17:30etik 20:00etara.

20an
- Haurren herrixkan zurezko jolasak muntatzeko tailerra 17:30etik 20:00etara.

21ean
- Urdanibia plazan San Tomas azoka eta ikuskizunak 10:00etatik 22:00etara.

22an
- Santiagon Gabonetako bola erraldoia 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.
- Haurren herrixkan tote bagen serigrafia tailerra 17:30etik 20:00etara.

23an
- Alberto Anguera plazatik Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera 17:00etan eta 21:00ak arte gutunen bilketa San Juan plazan.
- Amaia Kultur Zentroan 20:00etan Náyade abesbatzaren kontzertua. Sarrera gonbidapenarekin.
- Hiriko kaleetan Peña Poteoren emanaldia 19:00etatik 22:00etara.

24an
- San Juan plazan Olentzero eta Eguberri kantuen jaialdia 19:00etan.

26an
- Zabaltza plazan "Tiritirantes" antzerki zirkua 18:00etatik 19:30era.

27an
- Haurren herrixkan "Kimikarin" kimika tailerra 16:30etik 19:30era.

28an
- Haurren herrixkan Birziklatutako materialez egindako instrumentuen soinu-instalazioa eta kontzertua 11:00etatik 13:30era.
- Amaia Kultur Zentroan Bizinemak antolatuta "Harry Potter eta harri filosofala" ikuskizuna 17:00etan. Sarrerak 5 euroko prezioa izango du.
- Irungo erdigunean Deabru Beltzak, perkusio eta piroteknia ikuskizuna 18:30ean.

29an
- Haurren herrixkan Ondare elkartearen eskutik Gabonetako pertsonaiak 17:00etatik 18:00etara.
- San Vicente de Paúl-eko Majoretteak 18:30etik 20:00etara.

30ean
- Ocine Mendibilen Gabonetako Zinema Goiztiarreko saioa euskaraz Pixi Post eta Gabonetako Jenioak filmaren emankizuna 12:00etan.
- Hiriko hainbat kaletan barrena Burrunba Elektrotxarangaren emanaldia 19:00etatik 21:30etara.

31n
- Santiago kalean eta Sarjia parkean Bidasoako Erraldoiak 11:00etatik 13:00etara.

Urtarrilaren

2an
- San Miguelen, Alberto Anguera plazan, Gabonetako bola erraldoia 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.
- Ocine Mendibilen Gabonetako Zinema Goiztiarreko saioa gazteleraz Klara eta Gabonak baserrian 12:00etan.
- Amaia Kultur Zentroan urte berriko kontzertua Luis Mariano Orkestra eta Ballet Compagnie Lychore-ren eskutik 19:30ean.

3an
- Ocine Mendibilen Gabonetako Zinema Goiztiarreko saioa gazteleraz "Cuidado con lo que deseas" filmaren emankizunarekin 12:00etan.
- Zabaltza plazan Gabonetako pertsonaiak 17:30etatik 19:00etara.

4an
- Haurren herrixkan "Kimikarin" kimika tailerra 10:30etik 13:30era.
- Udaletxeko arkupeetan Maiestateen Morroiek haurren gutunak jasoko dituzte 16:00etatik 20:00etara.
- Hiriko hainbat kaletan Uikan dantza taldearen emanaldia 17:30etik 19:00etara.

5ean
- 18:00etan erregeak tren geltokira iritsiko dira eta 18:30etan Erregeen Kabalgata hasiko da Letxunborro hiribidean.

8an
- Amaia Kultur Zentroan Irun Hiria Musika Bandaren Kontzertua 19:00etan.

pickin'pack
Eguberri hauetan oparitu Picking & Pack-en erositako liburuak
irun

Lope de Irigoyen kalea 2 - 20301, Irun - 943 666 037 - ppspirun@pickingpack.net

Trikitixa protagonista gisa Gabonetako abestietan

Auntxa Trikitixa Eskolak hainbat emanaldi eskainiko ditu Eguberrietako egun esanguratsuenetan

Auntxa Trikitixa Eskolak Irungo Gabonen parte ezinbestekoa diren hainbat hitzorduetan parte hartzen du. Trikitixa eta Panderoaren irakaskuntzara zuzenduriko Irungo eskolak errepertorio zabala joko du Gabonetan. Iñaki Aranaga irakasleak akademiaren egoeraren eta hurrengo kontzertuen daten berri eman du.

Nola ibili zarete aurten Auntxa Trikitixa Eskolan?
Pandemia ondoren normaltasunera iritsi gara, pandemia aurreko egoerara, bai emanaldien aldetik bai besteetan ere.

Gabonak datoz eta bertan musika taldeentzako emanaldiak eta hitzorduak ugaritu egiten dira, ezta?
Bai, horrela izaten da beti, baina egun hauetan gehiago, egun berean ekitaldi asko baitaude. San Tomas egunean bertan, lehenengo Donostian joko dugu eta gero Irunen. Aurretik ere, abenduaren 16an Hendaian, Olentzeroren etorreran 23an eta Txingudi Ikastolako Guraso Elkartearekin 24an. Lanez gainezka gaude egun hauetan, baina kanpoan jotzea interesgarria da ikasleentzako.

Horiek izango dira, gutxi gorabehera, aurten izango dituzuen hitzorduak, ezta?
Bai, hori da, 16an Hendaian joko dugu. Era berean, San Tomas egunean, 21ean, Donostian egongo gara 14:30ean eta arratsaldean Irunen 19:30ean. Ama Shantalen zahar egoitzan ere joko dugu. Olentzeroren etorreran 23an, 24an eta Errege Egunean tren geltokian ere joko dugu.

Beraz, Gabonak lanez gainezka izango dituzue, baina emanaldi horiek ikasleentzako motibazio bat ere izango dira, ezta?
Bai, bai. Adibidez, San Tomas egunean jende askoren aurrean jotzea ikasleentzako oso motibagarria da. Azkenean, errepertorioak prestatzen ditugu horretarako, ikasleei helburu bat jarriz. Batzuetan presioa sortzen da, baina helmuga bat finkatuz gero ikasleak askoz gehiago saiatzen dira.

Erraza ote da hain denbora eta egun gutxitan hainbeste emanaldi antolatzea?
Esan bezala hainbeste emanaldi dituzunean aldez aurretik errepertorioak prestatzen dituzu. Denborarekin esaten diezu ikasleei "hau, hau eta hau lantzen joango gara", baina azkenean urtean zehar entsegu mordoxka egiten ditugu eta tartean edozein emanaldi sortzen bada ere, egiten dugu. Errepertorioak landuak dituzunean, oinarri bat duzunean, errazagoa da beti. Hasiberrientzako bai izaten dela pixka bat zailagoa, baina urte mordoxka jotzen daramatzatenentzako ez.

Errepertorioak Gabonetarako ere egokitzen dituzue, ezta?
Bai, azkenean tokiaren arabera. Urdanibia Plazan, adibidez, ez ditugu Gabon kantak joko, erromeria girokoak baizik. Bertan Joko ditugunak tradizionalak dira, fandango eta arin-arinak eta bestelakoak. Denetarik, pixka bat nahasiak, jendeak ezagunak dituen kantak.

Abesti tradizionalez gain, errepertorioak ere gaurkotzen dituzue?
Bai. Azkenean, denetik izan behar duzu jotzeko garaian, tokiaren arabera aldatzeko. Zahar egoitza batera joaten garenean Gabon kantak jotzen ditugu eta egoiliarrak emozionatu egiten dira. Orduan hori, tokiaren araberakoa da.

Gabonak alde batera utzita, urtean zehar bestelako hitzordu esanguratsuak izan ohi dituzue?
Aurtengo apirilean hiru orduko erromeria egin genuen Zabaltza plazan, eta erromeria talde batek egingo lukeen antzeko errepertorioa jo genuen. Batetik, betiko abestiak, fandango eta arin-arinak eta, bestetik, gaur egungo trikitixa taldeen kantak eta trikitixa ez diren taldeenak ere bai, noski. Datorren urtean, 2023an, antzeko zerbait egitea pentsatu dugu, auzoetara zabaltzeko helburuarekin.

Kalera ateratzea taldea ezagutarazteko eta jendeak musika estilo honetara hurbiltzeko positiboa al da?
Bai. Batzuetan kalera jotzera ateratzen zarenean eta jendeak ikusten zaituenean harritu egiten da. Ezagutzen ez zaituen jendeak ez du espero ikusten duena eta hau ere ikasleen autoestimuarentzako oso ona da. Plazako jendea harritzeak "subidoia" ematen die ikasleei.

Kurtsoa hasita egonda ere, jende berria onartzen duzue taldean?
Bai, beti izaten da kurtsoa hasita egon arren interesatua dagoena. Momentu honetan nahiko beteta daukagu eta agian uztartzea ez litzateke hain erraza izango. Baina ordutegiarekin moldatuz gero, bai, aukera dago.

Bukatzeko, nola ikusten duzu trikitixaren gaur egungo panorama?
Nik ikusten dudana da trikitixa modan dagoela, zenbait musika estilo ezberdinetan azaltzen baita, ez trikitixa klasikoa bezala bakarrik. Orduan, arlo askotan, musika estilo askotan, uztartzen den instrumentua da azkenean.

Iparra Txiki Berri, atseden hartzeko leku aproposa

"Irekitzeko momentuan gure lehenengo bezeroa covid-a izan zen"

"Egia da pandemia batetik gatozela eta ez daukagula aurreko urteekin alderatzeko aukera, baina beti goraka goaz"

Pertsona askok naturari begira lasai esnatzea amesten dutela gauza jakina da. Oxigenoa ere desberdina den esnatzea bilatzen dute. Iparra Txiki Berri Irungo Anaka auzoan dagoen ostatu turistikoa da, mendiz inguratua. 2020an bere bezero leialei zerbitzurik onenak eskaintzeko ateak ireki zituen etxe familiarra da. Ana Pérez Gútiezek, ostatuaren jabeak, etxe abegitsu honen historia eta bitxikeriak kontatu ditu.

Nola sortu zen alokairuko apartamentu turistiko bat sortzeko proiektua?
Egia esan, dena erorketa batetik etorri zen, berpizte batetik, birsortze batetik. Berrasmatu beharra zegoen, eta etxea edukita, ikusi genuen onena zela geneukanari etekina ateratzea.

Une zailean hasi zineten, ezta?
Ilusio askorekin hasi ginen. Proiektua gauzatu eta lehen solairuan erreformak egin genituen, baina irekitzeko momentuan gure lehenengo bezeroa covid-a izan zen. Ezin izan genuen ireki. Horrek larritasuna sortu zigun, ilusio guztia erori zitzaigun, baina hemen ezin da atzera begiratu, aurrera baizik. Orduan, askatasunaren ateak ireki zirenean, lan egiten hasi ginen, 2020ko ekainaren 2an. Pandemiaren hasieran negozioa ireki zuten ausarta horietakoak ginela konturatu ginen.

Nolakoa da ostatuaren kokapena?
Zoragarria, guztiaren erdian dagoelako, baina aldi berean baztertuta. Naturaren erdian kokatuta dago eta horrek isolatua egoteko eta atsedenaldi eraberritzailea izateko aukera ematen du. Era beran, deskonektatzeko eta telelana egiteko aproposa da, baina, aldi berean, edozein zerbitzutatik eta lekutik gertu dago, ezer falta ez izateko.

Lau logelen izenek inguruko paisaiarekin dute lotura, ezta?
Bai, horri ez nion buelta askorik eman. Bururatzen zaizu izen hoberik? Gela bakoitzari balkoitik edo leihotik duen ikuspegiaren izena jarri zitzaion. Guadalupe suite-an gaude orain, hemendik Guadalupe santutegia ikusten baita, noski. Bestetik, Jaizkibel gela dago eta aurrealdean Aiako Harria eta Zubelzu.

Zeintzuk dira bezeroei eskaintzen dizkiezuen zerbitzuak eta instalazioak?
Etxeak aparteko ateak dituzten lau logela ditu. Gonbidatuak sarrera nagusitik sartzen dira eta, behin erreserba eginda, bezero batetik bestera aldatzen doan kodea ematen zaie, sarrailak elektronikoak baitira. Horrela, bezeroek askatasun osoa dute, gainerakoekin inolako kontakturik izan beharrik gabe. Hori, egia esan, pandemia garaian sekulako abantaila izan zen. Eta zer zerbitzu eskaintzen ditugun? Ba batez ere atseden berritzailerako aukera, lekua lasaia delako. Egia da, adibidez, ez dugula jatetxe zerbitzurik, baina logela guztiek mahai bat eta kafe makinak dituzte, ongietorri opari gisa.

Nolakoa izaten da bezeroen profila?
Denboraldi baxukoak bertakoak izaten dira normalean, asteburua pasatzera edo Irungo familia bisitatzera etortzen direnak. Goi-denboraldian, aldiz, atzerritarrak izan ohi dira, erromes asko ere bai, gure Done Jakue bidearen zigilu propioa eta guztiz sortu dugu! Beste bezero mota europarra da, bere bigarren egoitzara doana, Portugalera edo Espainiako hegoaldera, eta gu bide erdian gaude. Europako bezero dezente ditugu fidelizatuta, normalean belgikarrak eta alemaniarrak, baita frantses asko ere. Gero, bezero nazionalak daude eta horiek dira egonaldi luzeenak egiten dituztenak.

Zer izaten da gehien baloratzen dutena?
Arreta. Kokapena, adibidez, aldatu ezin den zerbait da, beraz, bereizteko aukera bakarra arreta pertsonalizatua eskaintzea da. Hori lortzeko zure etxearen ateak ireki, laguntza eskaini, zure burua aurkeztu eta, batez ere, zerbitzua maitasunez eman behar duzu. Bezeroek egonaldi zoragarria eta ahaztezina izan behar dute, etxean bezala senti daitezen.

Orduan, arreta asko zaintzen duzuen zerbait al da?
Bai. Ni zerbitzuko emakumea naiz, bizitza osoa eman dut besteentzat lan egiten. Dudarik gabe bezeroen arreta guztiaren gainetik dago.

Zein izaten da okupazio handieneko garaia?
Lehen bultzada handia Aste Santuan hasten dela esan genezake. Ekainetik urrira arte okupazioa % 100ekoa da. Ez dago hutsunerik, eta ezerezteren bat izanez gero, berehala betetzen da berriro.

Bukatzeko, nola aurreikusten duzu 2023ko urtea?
Zorionez erreserba asko ditugu, uztaileko egun ugari beteta baitaude. Lan asko egin behar dugu, noski. Egia da pandemia batetik gatozela eta ez daukagula aurreko urteekin alderatzeko aukera, baina beti goraka goaz.

Bi irundar beren Peugeot 205 autoarekin Marokoko basamortuetako hondarretan lehiatu dira

Aitor eta Beñat Gil aita-semeek 2022ko Dust Race auto lasterketan parte hartu dute. Txapelketan parte hartu ahal izateko Peugeot 205 bat egokitu dute. Dakar tankerako abentura honetan orientazio ona izatea eta erregulartasuna mantentzeko gai izatea ezinbestekoak izan dira. Irungo aita-semeak pozik azaldu dira bidaiaren itzuleran eta esperientziak erakutsitako guztia azaldu dute.

Nola hartu zenuten lasterketa honetan parte hartzeko erabakia?
Aitor: Nire semeari burutu zitzaion lasterketa honetan parte hartzeko ideia. Proiektu honi buruz hitz egin zidan, eta nik hasieran lagun batekin joan zedin animatu nuen, baina nirekin joaten tematu zen. Egia esanda, esperientzia zoragarria izan da niretzat. Dakar lasterketa beti asko gustatu izan zait, eta niretzat esperientzia hau bizitzea amets bat bezala izan da.

Nola prestatu duzue autoa lehiaketan parte hartu ahal izateko?
Beñat: Kotxeari oinarrizko zenbait hobekuntza egin dizkiogu lasterketan parte hartu ahal izateko. Gehienbat, kotxearen altuera igotzeko suspentsioak aldatu genizkion. Autoaren beheko aldea babesteko txapa bat jarri genuen eta mendiko gurpilak jarri genizkion. Gainera, kotxearen gainaldean gauzak eramateko tokia egokitu genuen. Konponketa guztiak gure garajean egin dizkiogu, lagunen laguntzarekin eta barre artean.

Aurretik era honetako txapelketaren batean parte hartu duzue?
Aitor: Desertuko lasterketara joan aurretik Bidasoko Auto Klasikoen lasterketan parte hartu genuen. Proba horretan parte hartzea erabaki genuen, roadbook-a jarraitzea nolakoa zen eta orientabideak nola erabili behar ziren ikusteko. Lehen lasterketa hark ere balio izan zigun ikusteko ea autoak lasterketa osoa iraun zezakeen hondatu gabe, urte askoko autoa baita. Lehen proba horren ostean Azpeitiko auto klasikoen lasterketan ere parte hartu genuen, eta bertan oso ondo moldatu ginen.

Nolakoa izan da Dust Race 2022 lasterketan parte hartzeko esperientzia?
Beñat: Gure kalkuluen arabera guztira 4.500 kilometro egin ditugu, baina kontuan izan behar da lasterketa hasteko elkargunea Malagan zegoela eta gu Euskal Herritik kotxearekin haraino jaitsi behar izan ginela. Malagan Tangerrera pasatzeko ferry bat hartu genuen, han hasi baitzen lasterketa. Lasterketak guztira 6 etapa izan zituen eta gehienetan Marokoko hegoaldetik ibili gara. Etapa izugarriak izan dira desertuaren erdian eta hondar artean ibili garelako.

Lasterketan ustekaberik izan al duzue?
Aitor: Kanpamentura iristean egunero estutzen genituen egunean zehar lasaitu ahal izan ziren torloju eta azkoinak eta olio maila bezalako gauzak egiaztatzen genituen. Autoak oso ondo eutsi dio erronkari, eta harrituta nago gauzak zeinen ondo joan diren ikusita.

Zer gauzak harritu zaituzte gehien proban zehar?
Beñat: Orokorrean, esperientzia guztiak hunkitu gaitu. Hango paisaiak zoragarriak dira eta esperientzia itzela da egun osoa kotxearekin alde batetik bestera ibiltzea. Era berean, bertako jendeak eta beraien bizimoduak ere zur eta lur utzi gintuen, batez ere, haurrak errepide bazterrean pozik ikusi genituen arren, aurrez aurre ikusi genuen pairatzen duten pobrezia eta asko hunkitu gintuen. Asko harritu ninduen haurrak errepide eta mendietan oinutsik ibiltzen ikustea, ez nuen uste hain pobrezia larrian bizi zirenik. Kotxeak ikusterakoan gauzak eskatzeko hurbiltzen ziren eta oparitzeko gauzak eraman genituen arren, ez geneukan guztiei emateko nahikoa. Egia esan, ez da erraza izan haurrak egoera horretan ikustea eta haiei emateko ezer ez duzula esatea. Bestalde, esperientzia izugarria izan da, lasterketan zehar lagun asko egin baitituigu gainerako parte-hartzaileen artean.

Aita-semeak izanda, eta elkarrekin lehiatzean, eztabaida handiak izan dituzue zuen artean?
Aitor: Eztabaida txikiren bat izan dugu, baina ezer larririk ez. Zalantzarik gabe, erabaki egokia izan zen pilotu eta kopilotu postuak gure artean trukatzea. Horrela, gidatzea tokatzen zitzaigunean bagenekien zeinen zaila zen gidari lanetan aritzea, desertu erdian orientatzea ez baita erraza eta konturatzen zarenerako galduta egon zaitezkeelako.

Nola erantzun du autoak txapelketako erronken aurrean?
Beñat: Txapelketa beldurtuta hasi genuen, izan ere, kotxea 1989. urtekoa da, beraz, 33 urte dauzka. Hala ere, ez dugu arazo larririk izan. Ihes-hodia eta atzeko esekidura apurtu zitzaizkigun baina probaren azkeneko egunean izan zenez ez zen hainbesterako izan.

Giroa oso lehiakorra zen?
Aitor: Aldi berean bi lasterketa zeuden. Alde batetik, denbora ona egiteko asmoz zihoazenak zeuden, eta beste batzuk, berriz, ondo pasatzeko eta autoak ez hondatzeko asmotan genbiltzanak. Kide bat trabatuta geratzen zenean, gehien-gehienak hari laguntzeko gelditzen ginen, izan ere, gu izan gintezkeen hurrengoak arazoak izaten.

Laguntza handia jaso duzue hemendik esperientzia hau posible egiteko?
Beñat: Lasterketak izaera solidarioa du eta antolakuntzatik dohaintzan emateko materiala eramatea eskatzen ziguten. Horregatik, Realarekin harremanetan jartzea bururatu zitzaidan, proiektua aurkeztu nien. Berehala laguntzeko prestutasuna agertu zuten eta kutxa handi bat eman ziguten baloiez eta kamisetez betea. Lagun batek 3D inprimagailuarekin haurrei oparitzeko jostailutxoak eta zibak egin zizkigun. Haurrek edozein opari eskertzen zuten, nahiz eta eskolarako materiala eman, baina jostailuek ilusio berezia egiten zieten. Gainera, kotxearen gainean bizikleta txiki bat eraman genuen han oparitzeko.

Esperientzia errepikatzeko asmoa duzue?
Aitor: Bai, baina faktore asko izan behar dira kontuan. Berriz ere parte hartu ahal izateko, lasterketaren egunean opor-egunak elkartzeko aukera izan beharko genuke, kotxea libre izateaz gain. Baina esperientzia gisa, motorraren mundua gustatzen zaion edonori gomendatzen diot. Esperientzia eskuragarria da eta basamortuan barrena ibiltzea paregabea da.

mr electric systems ®
Electric Systems-ekin zerbitzu
elektriko guztiak eskura izango dituzu
- Instalazio elektrikoak
- Neurrira egindako argien azterketak
- Domotika eta automatismoak
- Bideozaintza eta alarmak
- Ahotsa eta datuak
- Proiektuak eta legeztatzeak
- Mantentze lanak
- Ekitaldiak
mrelectricsystems@gmail.com - 669 302 312

Bidasoa XXIeko neska igerilariek marka guztiak apurtu nahi dituzte denboraldi honetan

Bidasoa XXI klubarentzat denboraldi berria martxan dago jada. Klub irundarreko igerilariak dagoeneko bi txapelketetan lehiatu dira eta emaitza onekin itzuli dira etxera. Igerilariak Espainiako Kopa eta Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketen prestaketan zentratuak daude orain, Neguko Txapelketa bistatik galdu gabe. Maite Iguiñiz, Libe Galzakorta, Ainhoa Bacchi eta Lide Larrea igerilariek denboraldiko erronkak zeintzuk diren eta beren nahiak zeintzuk diren azaldu dute.

Nolakoak izan dira lehen txapelketetako lorpenak?
Ainhoa: Egia esan orain arteko txapelketak oso ondo joan dira. Lehenengo Euskadiko Kopan parte hartu genuen eta nik ez nuen asko parte hartu, proba batean bakarrik lehiatu nintzelako, baina oso ondo atera zitzaidan. Oraintxe Castellonetik itzuli gara Castalia Nazioarteko Txapelketan parte hartu ostean eta oso nekatuak gaude. Egia esan, gure emaitzak asko gustatu zaizkit, finalean sartzea eta arratsaldean igeri egitea lortu dugulako. Gure markak hobetzea lortu dugu, beraz, asko poztu gaitu horrek.

Libe: Ni hiru probetan lehiatu nintzen eta oso ondo atera zen dena.

Lide: Pozik gaude denboraldi hasieran ez genuelako espero hain marka onak lortzea. Aurten kategoria aldaketa izan dugu eta entrenamenduetan hori nabari da. Esaterako, gimnasioan ordu gehiago sartzen hasi gara eta hori beste aldaketei gehituta, hobekuntza nabaritu dugu.

Maite: Orain lehen baino gehiago entrenatzen dugu eta emaitzek horixe erakusten dute. Gainera, horrela jarraituz gero, badakigu emaitzak aurrerantzean geroz eta hobeak izango direla.

Garrantzitsua da denboraldia emaitza onekin hastea?
Libe: Bai, irailean batez ere entrenamendu fisikoa egiten dugu, gimnasioan eta korrika egiten ordu asko sartzen ditugulako. Urtarrilean jada igerilekura itzultzen gara uretan entrenatzeko, beraz, denboraldia hasi berri dugunez emaitzak onak dira.

Ainhoa: Tartean hain garrantzitsuak ez diren txapelketa batzuk izan ditugu, baina horietan ez da ikusten benetan zure marka zein den. Baina txapelketetan emaitza onak lortzen dituzunean poza ikaragarria da eta hurrengo lehiaketetarako gogo handiagoa sortzen zaizu.

Aldaketak izanda ere, emaitza onak lortzea seinale ona da, ezta?
Lide: Bai, emaitzak onak izateaz gain, lorpenek gure buruan konfiantza handiagoa ematen digute. Horrela, txapelketa handietara lasaiago goaz eta gehiago motibatzen gara. Pozgarria da egindako lanak emaitzak dauzkala ikustea.

Maite: Hori da. Denboraldi honetako entrenamenduetan gehiago lantzen ari gara teknika. Horrek ere txapelketetara lasaiago joaten laguntzen digu eta gure marken hobekuntzan zentratzeko aukera ematen digu.

Zeintzuk izan dira lehen lehiaketan izandako sentsazioak?
Libe: Garrantzi gutxiago duten txapelketetan gu normalean lehiatzen ez garen probetan parte hartzen dugu, zelako sentsazioak ditugun ikusteko. Garrantzitsuetan berriz, soilik gure probetan aritzen gara eta orduan ikusten dugu zein den gure benetako maila.

Ainhoa: Guztiok dugu okerrago egiten dugun zerbait, baina ondo dago tarteka hobetzeko aukerarik ba ote dagoen egiaztatzea. Noski, hori guztia gure modalitatearen prestaketaz ahaztu gabe.

Zuetako bakoitzak entrenamendu berezituak ditu?
Libe: Orain arteko entrenamenduak nahiko orokorrak izan dira, baina laster entrenamenduen intentsitatea igoko dugu. Txapelketen aurretik berriro maila jaitsiko dugu lehiaketetara nekatuegiak ez iristeko.

Ainhoa: Igeriketa modalitate bakoitza desberdina da. Libek bizkar igeriketa egiten du eta nik tximeleta eran eta bakoitzak bere entrenamenduak dauzka, teknika desberdina da eta.

Zeintzuk izango dira zuen hurrengo txapelketa garrantzitsuak?
Libe: Euskadiko Txapelketa da nire hurrengo erronka handia. Ondoren, Espainiako Neguko Txapelketa dator, oso txapelketa garrantzitsua ere, eta oraintxe horiek prestatzen nabil.

Ainhoa: Hamabost egun barru Espainiako Kopako txapelketa daukat eta bertan nire marka hobetzen saiatuko naiz. Gero, Libe bezala Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak prestatu nahi ditut. Ondoren Espainiako Neguko txapelketetan egongo gara errelebotan marka minimoa egitea lortu dugulako.

Lide: Ni ere Espainiako Kopan izango naiz eta aurretik geratzen zaizkigun bi aste hauetan horren prestaketan zentratuak gaude. Oraindik xehetasun tekniko batzuk hobetu behar ditugu taldearentzako ahalik eta puntu gehien lortzeko.

Maite: Nik berriz, Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketetan parte hartuko dut eta Neguko txapelketetarako marka minimoak lortzen saiatuko naiz.

HADE
HERRI JAKINTZA euskaltegia
Irunen, zuk euskaraz!
Zorionak eta urte berri on!
Eskaintza bereziak
Diruz lagundutako ikastaroak
Maila guztiak /H.A.B.E. titulu ofizialak / EGA / Azterketen prestaketa
(Hizkuntz eskakizunak, IVAP, IRALE) / On-line ikaskuntza / guraso taldeak
San Juan plaza 4 - 20304, Irun - 943 63 52 66 - herrijakintza@gmail.com

Gabonak antzinako Erroman

Ave, Caesar! Io, Saturnalia! (1880) - Sir Lawrence Alma-Tadema

Sol Invictus eta Jesus - Antzeko ikonografia

Gabonen gertutasuna dela eta Oiasso museotik galdera xelebre bat zuzentzen dizuegu. Nola ospatzen zituzten antzinako erromatarrek Gabonak? Gure ospakizunen antzekoak al ziren? Beraien erritu propioak zituzten edota beste herri batzuen ohiturak moldatu zituzten? Zer funtzio zuen kristautasunak ospakizun hauetan?

Lehenik eta behin kontuan eduki behar dugu Erromaren historia kristautasuna baina askoz aurretikoa dela. Nahiz eta kristautasunak inperioan eragin handia izan, erlijio berri hau erromatar munduko hainbat ohitura eta usadioz hornitu zen. Besteak beste, Saturnaliaz, hots, "Gabon" erromatarrez. Baina bi erlijio eta kultura hauen arteko tirabirak aztertu baino lehen, Saturnalia zertan datzan ikusi beharko genuke.

Neguko solstizioan ospatzen zen, gure abenduaren 21ean, eta Sol Invictus izeneko jai batekin hasten zen. Egun hori da Ipar Hemisferioak eguzki argi gutxien jasotzen duen eguna Lurraren makurdura dela eta. Beraz ospakizun garaia zen, handik aurrera geroz eta argi gehiago baitzegoen munduan. Honi esker, festa oparotasun garaiarekin erlazionatzen zen, izen hura jasoz. Baina zein zen Saturno orduan? Zergatik zuen oparotasunarekin lotura berezi hau?

Saturno, Uranoren semea eta Jupiterren aita zena, bigarren belaunaldiko jainkoa zen. Munduan, bere agintepean zegoenean, urrezko aro bat bizi izan zen, non gizakiek ez zuten lanik egin behar lurraren berezko oparotasunaz gozatzeko. Beraz, Saturnalia jaiek galdutako aro mitiko horren baldintzak islatu behar zituzten. Jendeak jan eta edan egiten zuen egun haietan Io, Saturnalia! oihukatuz.

Jai honen baliokideak beste kulturetan ere aurki ditzakegu. Grezian, adibidez, ezagunak ditugu antzeko jai batzuk, baina hain errealitate zatikatua bizi zen non hiri bakoitzak ospakizun eta egutegi propioak zituen. Jai hauetako usadioen artean bitxikeria batzuk aurki ditzakegu. Atenasen, adibidez, esklaboek jaunekin batera jaten zuten, eta Argosen gizon eta emakumeek janzkera aldatzen zuten beraien artean.

Baina itzuli gaitezen Erromara. Marco Juniano Justino historialari erromatarraren esanetan (K.o. II-III. mendeetan), bazegoen oso antzinako garai batean tribu mitiko bat italiar penintsulan: Aborigenak. Justinok Saturno errege bat bezala deskribatzen du, eta ez jainko baten moduan. Historialariak dioen moduan, Saturno, hain aparteko justiziako gizona omen zen, non inor ez zen bere erregealdian esklabo izan. Jabetza pribatua deuseztatua izan zen, eta gauza guztiak elkarren artean banatzen ziren. Bizimodu horren oroimenez, Saturnaliako jaietan esklaboak askatasun maila handiagoa zuten, eta Atenasen bezala, beraien jabeekin batera jan zezaketen edota leku publikoetan eseri.

Nahiz eta Justinok deskribapen zehatz bat egin, Makrobio izeneko erromatar idazlea (K.o. IV. mendea) dugu gaur egun kontserbatzen den iturri zehatzena, eta ez da oso oparoa. Bere Saturnalia izeneko obran jai hauek testuinguru bat besterik ez dira senatari batzuek gai oso desberdinak tratatzeko. Hala ere Justinoren antzeko hitzak erabiltzen ditu: Zorionezko garaitzat hartzen du, bai oparotasunagatik, baita esklabo eta askeen arteko banaketarik ez zegoelako. Makrobioren esanetan esklaboek gozatzen zuten gehien jai hauetan. Kontuan izan beharko genuke pertsona askorentzat urte osoan aske sentitu zitezkeen egun bakarra izan zitekeela, nahiz eta askatasun oso murritza izan.

Saturnaliak oso ospetsuak izan ziren bere sorreratik. Hauek K.a. 217. urtean ezarri ziren hirian, testuinguru oso latzean erromatarrentzako. Garai hartan Erromak bere gerra ospetsu eta latzena borrokatu zuen, Bigarren Guda Punikoa deritzoguna (K.a. 218-201), non Anibal Barca militarra behin eta berriro garaile agertzen zen. Trasimenoko porrota eta gero, Erromako hiria ezkortasun giro batean murgildurik zebilen, beraz senatuak herriaren kemena sustatzeko, festa hauek ospatu zituen. Hain famatuak egin ziren, zein seiehun urtez festa ospetsuenak izan ziren. Baina kristautasuna inperioan bermatzen zihoan heinean, usadioak ere aldatzen joan ziren. Kristauek atzeman zuten jaialdi hauen garrantzia, eta estrategia oso trebez Jesusen jaiotza garai horietan finkatu zuten. Horrela, herriak ospakizun hauek egiten jarraituko zuen, baina kristoren mezua zabalduz.

Kristautasunak, beraz, garaiko erlijio ugarik bezala, bere inguruko ohiturak xurgatu zituen, eta mendeak igaro ostean, bat bilakatu ziren. Beraz, gaur egun, pentsa dezakegu Gabonak ospatzen ari garen bitartean Saturno gurtzen ari garela. Hortaz, antzinako libazko bat balitz bezala, hartu dezagun ardo, esne edo ezti pixka bat jai hauetan eta ospa dezagun Saturnoren oparotasun garaia.

Salutem vostram! Io, Saturnalia!

Adur Intxaurrandieta Ormazabal.
Antzinako historian doktoredun (USC).

EGUZKITZA HH4

Eguzkitzako Haur Hezkuntzako 4 urtekoek Neguko festak direla eta egindako gabonetako zuhaitza. Sortzaile apartak gure txikiak.

DENBORA-PASAK

7 hitz: Gabonetako apaingarriak

K	R	H	N	M	J	Z	D	Z	G	Y	Q	F	X
A	F	I	I	K	J	O	J	Q	B	Z	H	L	S
N	L	H	K	T	A	M	V	Q	Y	S	Q	R	G
P	J	T	B	F	I	W	L	A	Q	Q	S	M	F
A	T	H	R	K	O	O	K	X	A	I	F	M	T
I	Z	N	Z	W	T	K	P	H	E	R	X	I	P
Z	E	R	W	L	Z	S	T	R	I	L	B	H	D
I	U	I	C	M	A	C	N	I	X	A	V	U	Q
Z	X	H	B	A	E	X	Z	I	L	N	G	R	Y
A	T	N	A	B	O	X	D	J	I	D	K	A	L
R	G	S	W	I	A	R	G	I	E	A	E	G	B
W	N	I	A	C	T	M	U	B	F	B	K	P	N
B	D	R	V	O	R	Z	Y	Y	J	A	H	R	X
W	Y	N	F	P	I	Z	U	I	H	L	M	R	H

Zuhaitz, jaiotza, girlanda, izar, argi, mihura, kanpai.

		2				6	5	
3	8	5	2	9		4		
6	4		5	8			2	
	5		6					
	3	4		7				
8		6					4	2
				5	3		9	
							6	
		8				7		3

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Iru senire baserritarrak

Jaungoikuaren esperantzarik ez izatia da gauza itsusiya. Oaiñ esango dut itz batzuekiñ.

Baserri batian bizi ziren bi anaia eta arreba.

Bildu zittuzten kosetxak udazkenian. Eta neurri zittuzten eta falta zuten otordu bat. Pentsatu zuten: "noiz utziko dugu jan gabe? guazen gaur gabian afaldu gabe".

Joantziren oyera eta il tziren iruak.

Orra ze gauza tristia den Jangoikuagan ez esperientzia.

Irungo Kateako S. R. A. andereari jasoa (1959-XI-14). Amari ikasi zion

(El Bidasoa, 1960-I-23)

BELASKOENEA LH5

la BIO teka

Denda ekologikoa
Gorputz konposaketaren analisia
HEYQNUT - Fruitu lehor krema
Aukeratutako produktu ekologikoak
Produktu onenekin beteriko zure ECOBOXa hilabetero jaso ezazu
bioteka.es Beraketa 15, Irun 943 63 04 68

bideosare
-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia
Bideoak zure erara !
bideosare.com

Sokka gazte ekintzaile taldeak Gabonetako Negulekuak antolatuko ditu Irunen

Sokka gazte ekintzaileen taldeak Gabonetako Negulekuak antolatuko ditu Irunen. "Artista izan nahi dut!" Negulekuen bitartez kirola eta artea zentzu guztietan lantzeko gunea proposatzen dute. Negulekuetan Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bi txanda egingo dira Palmera Montero eraikinean. Sokka taldeko Jon Sierra eta Nahia Azkaratek proiektuaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Sokka 15 gazte ekintzailek sorturiko irabazi asmorik gabeko junior enpresa elkarte bat da. LEINN (MTA Irun Lab) unibertsitate graduko lehen enpresa euskalduna da. Enpresa gazte honek kontsumo jasangarriarekin lotutako proiektuen aldeko apustua egiten du, berrikuntzaren eta kulturaren sustapenari buruzko proiektuak garatzeaz gain.

Sokka taldeak "Artista izan nahi dut!" izeneko Negulekuak proposatzen ditu Gabon hauetarako Irunen. Negulekuak Palmera Montero eraikinean egingo dira eta 2013. eta 2018. urteen artean jaiotako haurrek parte hartu ahalko dute. Lehenengo txanda abenduaren 26tik 30era egingo da eta bigarrena urtarrilaren 2tik 5era.

Negulekuetako prezioa izen emate dataren araberakoa izan da. Abenduaren 4ra arte prezioak merkeagoak izan badira ere, abenduaren 5etik aurreratzean izen ematearen prezioa honakoa izango da: lehenengo txandak 86 euroko prezioa du eta bigarrenak, laburragoa denez, 69 eurokoa. Bi txandak batera erreserbatuz berriz, prezioa 150 eurokoa izango da.
Izena emateko beharrezkoa izango da Sokka taldearekin harremanetan jartzea. Beraz, interesdunek +34 727 71 47 37 telefono zenbakira deitu dezakete Jonekin hitz egiteko. Era berean, artistaizannahidut@gmail.com helbide elektronikora idatziz edo Instagrameko @artistaizannahidut kontua erabiliz talde antolatzailearekin harremanetan jarri daitezke.

Negulekuen funtzionamendua

Unibertsitatean landutako "Learning by doing", hau da "eginez ikasi", metodologia aplikatzen du Sokka taldeak bere proiektuetan. Jon Sierrak adierazi du, "konturatu gara haurrentzat ere errazagoa dela gauzak barneratzea eginez ikasten dutenean, azalpen teoriko hutsak eman ordez". Nahia Azkaratek azaldu duenez, "unibertsitatean ere gu geu gure irakasleak gara, talde lan asko egiten ditugu eta gure akatsez ikasten dugu". Beraz, Negulekuen bitartez lan egiteko era hori ere erakutsi nahi diete haurrei.

Beraz, Negulekuetan parte hartzen duten haurrei egun gutxitan arte diziplina, jolas eta kirol asko ezagutzeko aukera eskaintzen diete Mondragon Unibertsitateko bigarren mailako ikasleek. "Haurren irudimena, bereizketarik gabeko parte-hartzea eta elkarlaguntza bezalako balioak sutatzen dituzten jolasak proposatzen saiatzen gara, uste baitugu haurren garapenerako garrantzitsuak direla", azaldu du Nahia Azkaratek.

Negulekuak antolatzeko unean proiektu osoa euskaraz egiteko erabakia hartu zuten ikasleek, prestaketaz gain, Negulekuetan ere euskara izan dadin erabilitako hizkuntza. Nahia Azkaratek azaldu duenez, "Udalekuak elebitan, euskaraz eta ingelesez egin genituen arren, orain antolatu behar ditugun Negulekuak euskara hutsean egitea erabaki dugu". Aurrekoetan haurrei eguneroko bizitzan erabiltzen diren ingelesezko hitzak erakusten saiatu ziren, baina haurren interes falta ikusita, euskararen aldeko apustua egitea adostu dute. "Azken batean Negulekuak haurrek ondo pasatzeko proposamena izatea nahi dugu, ez eskolaren antzeko zerbait", gaineratu du Jon Sierrak.

Proiektuaren bilakaera

Irungo Negulekua ez da izango Sokka taldeak antolatutako lehen ekintza. Izan ere, abuztuan jada antolatu dituzte Errenterian lehen Udalekuak. Jon Sierrak azaldu duenez, "hilabete horretan herrian haurrentzako eskaintza gutxi zegoela konturatu ginen". Beharra identifikatuta, erlojuaren kontra hasi ziren lanean eta Orereta Ikastolaren baimena lortu zuten proiektua gauzatu ahal izateko. "Lehen esperientziarekin pozik geratu ginen, haur askok eman zutelako izena eta dena ondo atera zelako", gaineratu du Sierrak.

"Hilabete horretan herrian haurrentzako eskaintza gutxi zegoela konturatu ginen"
Jon Sierra

"Unibertsitatean ere gu geu gure irakasleak gara, talde lan asko egiten ditugu eta gure akatsez ikasten dugu"
Nahia Azkarate

Sokka taldearen helburuetako bat aisialdi eskaintza bereizia sortzea da. Nahia Azkaratek azaldu du hasiera batean bakarrik artean zentratutako tailerrak antolatzea pentsatu zutela. Azkarateren hitzetan, "umeekin eskulanak, antzerkia eta artea lantzea bururatu zitzaigun, baina Errenteriako esperientziak erakutsi zigun eskaintza horrek orokorrean neskak erakartzen zituela bakarrik". Horregatik, Irunen eta Donezteben egingo diren Negulekuetara begira kirol eskaintza gehitzea erabaki dute eskaintza osatzeko.

Jon Sierra eta Nahia Azkaratez gain, beste lau pertsona ari dira proiektu hau aurrera ateratzeko lanean. Momentuz, Irun eta Doneztebeko Negulekuak baieztatuak dituzte eta eskaintza Ormaiztegira zabaldu ahal izateko ahalegintzen ari dira. Taldekideen artean Negulekuak antolatzeko zereginak banatzen badituzte ere, beraiek arduratuko dira Negulekuak zuzentzeaz eta haurrekin egoteaz, 3 monitorek begirale titulua baitute.

Antolatzaileek onartu dute Irunen momentuz Negulekuek arrakasta gutxi izan dutela, baina izen emate epea zabalik dago oraindik. Nahia Azkaratek ondorioztatu duenez, "herri txikiagoetan haurrentzako eskaintza murritzagoa denez, jendeak horrelako aukerak gehiago aprobetxatzen ditu". Bien bitartean, ikasleak proiektu berriak antolatzen ari dira jada, izan ere, datorren urteko urtarriletik otsailera Costa Ricara doaz unibertsitateko proiektuak garatzeko. Bidaia horretarako dirua biltzen jarraitzeko asmoz hoteletan eta herrietan Negulekuen antzeko tailer gehiago antolatzeko asmoa dutela azaldu dute eta aurrerantzean emango dute horien berri.

Bidasoa Formación
- HIZKUNTZAK (Ingelesa, frantsesa, euskara)
- ESKOLA LAGUNTZA
Talde txikiak eta banakako klaseak
Matrikula doan
Eliza Kalea 4 IRUN (San Juan plazan) 688 889 547 - info@bidasoaformacion.es

irun
www.irun.org/igazte
gazte informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

GazteARTEan Expo berria

Anne Bravo, Anne Isi artistak "Mundo púrpura" erakusketa antolatu du Gazteartean Expo programaren barnean. Erakusketa Martindozenea Gaztelekuan egongo da ikusgai abenduaren 16tik 2023ko urtarrilaren 22ra arte.

Lekua: Martindozenea Gaztelekuan.
Tailerra: Artista Gonbidatuak tailerra eskainiko du abenduaren 16an, arratsaldeko 17:30etik aurrera.
Artista gonbidatuak bere sorkuntza-prozesua azalduko du, baita Taroteko karta-sortarekin egiten ari den lana, ilustrazioa eta kontzeptualizazioa ere.

Gabonetako ekintzak Irunen

Irunen boluntariotza egiteko kanpaina

Abenduaren bigarren hamabostaldian boluntariotza kanpaina jarriko du martxan Irungo Udalak. Hirugarren Sektore Sozialean dauden erakundeei laguntzeko hasiko da ekimena. Izan ere, Irunen gutxi gorabehera 60 erakundek lan egiten dute zenbait kolektiboren alde (emakumeak, etorkinak eta gutxiengo etnikoak, gizarteratzea, lankidetza, desgaitasuna, adinekoak eta herritarrak oro har).

Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko arloak azterlan bat egin du hiriko hirugarren sektore sozialari buruz. Bertan, hiriko entitateen fitxak jasotzen dira, eta horien egoera aztertzen da. Txostenean jasotzen denez, 1.000 pertsonak laguntzen dute, modu boluntarioan, Irungo hirugarren sektore sozialeko jardueretan, gutxi gorabehera. Kontuan hartuta datozen urteotan laguntza beharko duten pertsonak ugarituko direla aurreikusten dela, azterlanean boluntario gehiago beharko direla nabarmentzen da, zerbitzuen eskariaren igoerari erantzuteko.



Asun Casasola ipuin laburren lehiaketa

Martxan da Asun Casasola Ipuin Labur lehiaketaren VIII. edizioa. Lehiaketara aurkeztutako lanak 2023ko otsailaren 8ra arte jasoko dira. Lehiaketak lau kategoria dauzka. Batetik, lanaren hizkuntzaren araberakoa, euskaraz edo gaztelaniaz eta bestetik, parte-hartzaileen adinaren araberakoa. Gazteena, 2006tik 2012ra jaiotakoentzat eta, helduena, 2005ean eta lehenago jaiotakoentzat. Munduko edozein txokotatik bidali ahal izango dira ipuinak.

Aurten berrikuntza gisa bi gai izango dira. Gazte kategoriarentzat bat eta helduen kategoriarentzat beste bat.

Gazteak: Indarkeria matxista haurren begiradatik irudikatzeko lanean jarriko ditugu idazle helduak. Nola ikusten dute umeek indarkeria matxista?

Helduak: Idazle gazteak aldiz, mutilek edo gizonek indarkeria matxistaren aurrean egin behar dutenaren inguruan hausnartzera gonbidatu nahi ditugu.

Lanak posta arruntaz edo posta elektronikoz bidal daitezke.
Posta arruntaz bidalitakoak BDS koop. Aixin Zolua Ibilbidea, 5, 20304 Irun, Gipuzkoa, 20304 helbidera bidali behar dira. Posta elektronikoz bidalitakoak berriz, asuncasasolaipuina@gmail.com helbidera.

Gabonak Gaztelekuan

Martindozenea Gaztelekuan abenduko bigarren hamabostaldian zehar hainbat ekintza egingo dira. Hauek dira antolatutako ekintzak:

– Abenduaren 16an, ostirala: Billar txapelketa, 17:00etatik 21:00etara Gaztelekuan.

– Abenduaren 16an, ostirala: "Mundo púrpura" erakusketa eta tailerra, 17:30eatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 17an, larunbatean, Eta gaur zer? Ekintza 17:00etatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 17an, larunbatean, Ramen sukaldaritza 18:30etik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 22an, ostegunean, Bingoa eta loteria 18:00etatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 23an, ostiralean, Opari tailerra 18:00etatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 24an, larunbatean, mendi irteera Aiako Harrira. Goizeko 10:30ean Palmera Montero eraikinean.

– Abenduaren 28an, asteazkenean, Asexora-T "Eta honi buruz hitz egiten badugu...?", 17:00etatik aurrera Gaztelekuan.

– Abenduaren 29an, ostegunean, Saw scape room-a 16:00etatik 21:00etara.

– Abenduaren 30ean, ostiralean, elegante arratsaldea, 17:00etatik 21:00etara gaztelekuan.

– Abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra Topagunea 17:00etatik 21:00etara Gaztelekuan 15-18 urte bitarteko gazteentzat.
Programazioari buruzko informazio guztia www.irun.org/gazteartean webgunean kontsultatu ahalko da.

Izotz pistak musikaren erritmora

– Abenduaren 17an, larunbatean 19:00etatik 21:00etara Pio XII-ko izotz pista Alex Muguiro DJak girotuko du.

– Abenduaren 23an, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara Pio XII-ko izotz pista Oihan Vega DJak eta Aitana Grande DJ irundarrak girotuko dute.

– Abenduaren 30ean, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara Pio XII-ko izotz pista Asier Hernandezek girotuko du.

ABENDUAREN

17an

Gabonetako Krosa

Zer: Super Amara Gabonetako Krosa lasterketa.

Abipuntua: Colón pasealekuan, Zabaltza plazaren parean.

Helmuga: Luis Marianon.

Irteera ordua: 16:45ean.

Distantzia: 5 km.

18an

Gabonetako Kontzertu Solidarioa

Zer: XXV. Gabonetako Kontzertua Solidarioa "Ma Non Tropo" Orkestra sinfonikoa, Ametsa Korua eta sei solistak, Fernando Etxeparen zuzendaritzarekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

21ean

San Tomas

Zer: San Tomas Feria.

Non: Urdanibia plazan.

Ordutegia:

·10:00etan: Merkatua hasiko da.

·17:00etatik aurrera: Dantza eta Musika taldeak.

·22:00etan: Burrunba elektro-txaranga.

23an

Kontzertua

Zer: Náyade abesbatza eta Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Sarreren salmentarako webgunean, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean.

23an

Olentzeroren etorrera

Zer: Olentzeroren etorreraren desfilea eta eskutiz bilketa.

Ibilbidea: Alberto Angera plaza,Hondarribia kalea,Zubiaurre kalea, Estación Kalea, Colón Ibilbidea, Foru Karrika,Karrika Nagusia eta San Juan plazan bukatzeko.
Irteera: 17:00etan.

Gutunen bilketa: 18:30etik 21:00etara udaletxeko arkupetan.

24an

Kantu jaialdia

Zer: Olentzero eta Eguberri kantuen jaialdia.

Non: 19:00etan.

Non: San Juan Harri Plazan.

Denbora-pasen emaitzak

9	1	2	7	3	4	6	5	8
3	8	5	2	9	6	4	7	1
6	4	7	5	8	1	3	2	9
2	5	9	6	4	8	1	3	7
1	3	4	9	7	2	5	8	6
8	7	6	3	1	5	9	4	2
7	6	1	8	5	3	2	9	4
4	9	3	1	2	7	8	6	5
5	2	8	4	6	9	7	1	3

NESKA POLITA
Eskuz egindako xaboiak
Ekitaldietarako xehetasunak
Iparralde hiribidea 4, Irun

zure denboraren balioa

Baduzu partekatzeko unerik?

EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO

ZURE DENBORA BEHAR DUTEN IRUNGO ERAKUNDEAK

http://bit.ly/3UX9vQL

Ayuntamiento Udala

irun

www.irun.org